

EUSKAL IZENONDOAREN KOKAPENARI BURUZKO ZENBAIT OHAR

Donostia, 1992-V-29

Juan Carlos Odriozola eta Alberto Cantero

Euskal Herriko Unibertsitatea

LABURPENA

Tradizionalki adjektibo kalifikatzailetzat hartu izan den elementuaren kokaguneaz, autore guztiak datoz bat: soilik izenaren eskubialdean koka daiteke (*erreakzio exotermikoa* / **exotermiko erreakzioa*); izenarekiko lotura lortzeko atzizkia daramaten izenlagunak, bestalde, eskubi zein ezkerraldean ager daitezke (*nazioarteko araua* / *arau nazioartekoa*). Gaur egun, ordea, morfologikoki inola ere izenlaguntzat ezin jo daitezkeen adjektiboak ezkerraldean kokatzeko nolabaiteko joera salatu behar da. Lan honek, helburu xumea du: joera oker horren sorterazeak zeintzu izan daitezkeen finkatzen saiatuko gara, horrela okerra baztertzen lagun deza-kegulakoan. Ikuspegi hori hautaturik, alde batera utziko ditugu adibidez Eguzkitzak izen-sintagmaz eskaini digun ikuspegi teoriko eta interesgarriaren antzeko ildoak.

Kokagune oker honek hedapen zabal samarra du maila teknikoan; agian hizkuntz maila horretan ugari diren maileguzko adjektiboek, nahas-keta horretara daraman beste faktore bat dute. Lan honetan, hain zuzen, adibide teknikoetan oinarritu gara kontu guzti hau azaltzerakoan; edozein modutan, informazio-transmisioaren prozesua, inon baino delikatuagoa da maila teknikoan, edo bestela esanez, mezuaren deskodifikazio egokiak inon baino zailtasun handiagoak ditu, eta bertan dugu arrazoirik garrantzitsuenetarikoa **exotermiko erreakzioa* moduko sekuentziak baztertzeko.

1. sailean, Euskaltzaindiak (1985) proposaturiko terminologia berriaren abantailak ikusiko ditugu: Adjektiboa, zenbakarri izan gabe izena modifikatzen duen edozein elementu izango da; adjektiboen artean, izenlagunak eta izenondoak bereiztuko ditugu: lehenengoek, lotura-atzizkia hartzen dute eta eskubi zein ezkerraldeko gunean koka daitezke; bigarren-ekoek, ez dute lotura-atzizkirik hartzen eta halabeharrez kokatu behar dira eskubialdean izen-sintagma osoaren deklinabide-kasua hartuz. 2. sai-

lean, *-ko*, *-tar* eta *-dun* atzizkiek sorteraziriko izenlagunak ikusiko ditugu: Zenbait hitzunez, ez bide dituzte sentitzen hauetariko batzu izenlagun modura, izenondo modura baizik, eta horregatik, edozein izenondo izenaren ezker aldean jar daitekeela ondorioztatu bide dute (*nazioarteko* = *kimiko*). 3. sailean, izenondoaren nominalizazioak ejar ditzakeen okerrak aztertuko ditugu, batez ere izen zein izenondo modura ager daitezkeen hitz eratorriei dagokiari. 4. sailean, *arazo ekonomiko/ekonomi arazoa* bezalako alternantziaren inguruko zenbait kontsiderazio egingo ditugu. 5. sailean, izenaren ezker aldean kokatzen diren elementu sailkagaitz batzu ikusiko ditugu, beraiek ere kokagune-oker horren sorterazle direla behatuko dugularik (*frantses gizona*, *azken gaua*, *gaixo haurra!*). 6. sailean, amaitzeko, atera daitezkeen ondorioak laburtuko ditugu.

1. SARRERA

Lafitte (1944), Villasante (1978 eta 1980), Txillardeggi (1978), Goenaga (1978), Irigoien (1979), Ensunza (1988) edo Eguzkitza (1990) bezalako euskal autoreek (1), terminologia bat ala beste erabiliz, garbi deskribatu dituzte soilik izenaren eskubialdean eta lotura-atzizkirik gabe ager daitezkeen elementuak batetik eta lotura-atzizkia harturik izenaren ezker zein eskubialdean ager daitezkeenak.

Arazaori ondo eusteko, ikuspegi terminologikotik has gaitezke, azken finean arazoaren gunearekin harreman estua baitu adjektibo/izenondo oposaketa terminologiko horrek: Euskaraz, bi elementuk modifika dezakete izena, maila sintaktikoan beraren ondoan agertuz eta maila semantikoan beraren esangura zehaztuz. Elementu guzti hauei, talde modura, Euskaltzaindiak (1985) **adjektibo** deritze, berbaren ohizko adiera zabalduz.

a) Izenaren ezker alde zein eskubialdean ager daitezkeenek, deklinabideko loturako atzizki bat hartzen dute izenari nolabait eransteko. Mota honetakoak, Goenagak (1978) eta Euskaltzaindiak (1985) **izenlagun** izendatu dituzte. Izenaren eta izenlagunaren artean dagoen txertakuntz mailari dagokionez, linguistika teorikoan egoera desberdinak ikusi dira eta geroago azalduko dugunez, *-ko* daramatenek, harreman urrunagoa, hots, txertakuntz maila altuagoa dute *-tar* edo *-dun* dutenek baino:

- (1a) *Oinarrizko teoriaren arauera*
- (1b) *Teoria oinarrizkoaren arauera*
- (2a) *Kale bilbotarrak*

(1) Lan honen hasieran, eskertu beharrean gaude oso baliogarri gertatu zaizkigun Igone Zabalaren iradokipenak; zer esanik ez, egon daitezkeen erruak geureak dira, ekarpen on guztia neurri garrantzitsuaz berari zor diogularik.

- (2b) *Bilbotar kaleak*
- (3a) *Oreka termikodun egoera*
- (3b) *Egoera oreka termikoduna*

b) Izena soilik eskubialdetik eta lotura-atzizkirik gabe modifika dezaketenak, adjektibo modura izendatu zituen Goenagak (1978), baina Euskaltzaindiak (1985), **izenondo** berba nahiago izan du:

- (4a) *Molekula lipidikoak*
- (4b) **Lipidiko molekulak*
- (5a) *Arazo metodologikoa*
- (5b) **Metodologiko arazoa*
- (6a) *Kontu interesgarria*
- (6b) **Interesgarri kontua*

Egia esan, hitzen etimologiari begira, izenlagun/izenondo bikoteak garbiki eta intuitiboki adierazten du izenaren modifikatzaile (ez-zenbakarri)en arteko bereizkuntza. Adjektibo, bestalde, izenaren edozein modifikatzaile adierazteko, hots, izenlagunak zein izenondoak izendatzeko erabiliko dugu hemendik aurrera. Izan ere, adjektibo horren barnean dauden bi elementu desberdinen arteko nahasketaz arituko gara lantxo honetan. Laburtuz bada, (1-3) izenlagun ditugu eta izenaren ezker (a) zein eskubiadean (b) koka daitezke; (4-6), bestalde, izenondo dira eta soilik eskubialdeko gunea (a) onar dezakete.

2. IZENLAGUNAK

2.1. -Ko

Autore askok adierazi dutenez, *-ko* atzizkia izenari lotzeko hartzen duten zenbait hitz, lexikalizatu egin da (2); bestela esanez, zenbait hitzunek edo agian komunitate osoak, galdu egin du hitz horiek izenlagun zirelako kontzientzia. Hori gertatu den neurrian, hitz horiek ezin bereiz daitezke morfologikoki izenondo modura izendatu ditugunetatik. Ez da galdu ordea bi kokaguneen sibilitate. Hau da, oinarritzko adjektiboa, (1a) zein (1b) modura ager daiteke, baina hitzun batek edo komunitateak hitzak izenari lotzeko *-ko* atzizkia dagoela ez baldin badaki, ez du bereiztuko morfologikoki *oinarritzko* eta *lipidiko* eta bietarako erabiliko ditu (a)

(2) Lexikalizazio hitza zenbait prozesu linguistiko desberdin izendatzeko erabili izan da; lan honetan, honelaxe ulertuko dugu: Baliabide sintaktiko bat, beraren kontzientzia linguistikoa galduz hitz baten zati organiko bihurtzen deneko prozesua. *Oinarritzko* delakoak, *izena* + *-z instrumentala* + *-ko leku-genitiboa* dauka, baina, prozesua edonola izan bada ere, gaur eguneko zenbait hitzunek ez dakite izenlagun denik, *-ko* bukaera hori deklinabidekotzat jotzen ez dutelarik.

eta (b) posibilitateak. Erruak, zabalera handiagoa har dezake, *-ko* bukaera ez duten izenondoetara ere hedatuz (6b).

-ko atzizki hau izenari lotzen zaio zuzenki, edo tartean *-z* instrumentala duelarik. Era berean, aditz-izenari edo partizipioari erantsirik ager daiteke nolabaiteko menperatuak eratuz. Edonola izanik ere, interesgarri gerta daiteke hainbat autorek lexikalizatu modura aipatu dituen izenlagunak berrikustatzea. Ikus bedi zenbait kasutan ondoko erromantzeen izenondoaren existentziak nolabaiteko eragina izan lezakeela:

Lafitte-k: *bonheur celeste / zeruko zoriona, feu eternel / betiereko sua, guerre eurpéenne / europako gerra.*

Villasante-k: *jatorrizko, bidezko, oinarrizko, haragizko, gehiegizko, zinezko, borondatzeko* eta *bestetik, kalteko, antzeko, zorioneko, azaleko, benetako.*

Azkue: Izen modura lexikalizatu direnak, hau da izenaren laguntzarik gabe erabiltzen direnak (*belarriondoko* bezalako kolpe-izenak eta *soin-gaineko* bezalako jantzi-izenak) eta izenaren bi aldeetan kokatzen direnak (*urezko, egiazko, legezko, berezko*).

Eguzkitzak (1990), bide teorikoetatik joanez, bi *-ko* desberdin bereizi ditu: (7) bezalakoek, izenondoek bezalaxe, izenaren ezaugarri bat adierazten dute eta parafrasi modura *hatsarri handia duen ikerlea* asma liteke. (8-9) bezalakoek, leku/denborazko zirkunstantzia adierazten dute eta parafrasi gisan, *Santurtzitik datorren tren* edo *Bilbon jaio zen mutila* izan genitzake. Honelakoetan, *-ko* horren aurrean bestelako deklinabide-atzizki bat dago, (9) delakoaren kasuaren azpian *-n* inesiboa legokeelarik. Eguzkitzaren adibideen moldapenak diren (7b) eta (9a-b) direlakoek, autoreak emandako ideia bat baieztatu dezakete: Mota honetako izenlagunek ez daukate oso txertakuntz maila sakona (3) izen-sintagman eta horregatik, bestelako elementuak tarteka daitezke beraien artean.

(7a) *Hatsarri handiko ikerlea*

(7b) *Hatsarri handiko bilbotar ikerlea* /**Bilbotar hatsarri handiko ikerlea*

(3) Gramatika sortzailearen arauera, bai *-ko* duten hauek, bai geroago ikusiko ditugun *-tar* dutenak, adjunkzioak dira, hots, oinarrizko egitura aldaerazi gabe erants daitezkeen gaineratiko elementuak. Gramatika horren akordioak onartuz, honelako analisiak egin ditu Eguzkitzak (1990):

[[[Santurtzitiko]]]S [[trena]I]P]P]S
[[[Santurtzitar]]S [[mutila]]]I]P]S

Ikus daitekeenez, esparru teoriko honetan, izen-sintagmaren (IS) eta izenaren (I) artean erdiko maila bat (I') onartu da, sintagma guztietan benetako isladapen fisikorik ez badu ere. Horretaz gain, *-ko* duten izenlagunak, I' mailako adjunkzio dira eta beraz, P batekin lotzen dira berriro ere I' bat emateko; I' -tik beherako egitura beraz, mantendu egiten da. *-Tar* dutenak aldiz, autore horren ustez I mailako adjunkzio direnez, I batekin lotzen dira berriro I emateko.

- (8) *Santurtzitiko tren*
- (9a) *Bilboko mutila*
- (9b) *Bilboko bizardun mutila* /**Bizardun Bilboko mutila*

Gauzak edozelangoak izanik ere, arazoaren gunea ez dago soilik oinarritzko edo benetako elementu lexikalizatu garbietan oinarriturik. Mota honetako lexikalizazioak, gradiente bat bide dauka; hitzaren arauera garbiago edo ilunago sentitzen da deklinabide-atzizkiaren presentzia. Berez, eskubialdeko kokagunearekiko onargarritasuna aldakorra da, izenlagun modura sentitzen direnen artean ere:

a) *-ko* horren aurrean bestelako atzizki ageri bat daukatenean artean, desberdintasun nabaria dago: Leku, denbora edo bestelako zirkunstantzia bat adierazten dutenek, ez dute ondo onartzen eskubialdeko kokagunea (4):

- (10a) *Tenperatuarekiko independentzia*
- (10b) **Independentzia tenperatuarekikoa*
- (11a) *Kitinazko medioa*
- (11b) **Medio kitinazkoa*
- (12a) *Zerorainoko tenperatur beherakada*
- (12b) **Tenperatur beherakada zerorainokoa*

b) Zirkunstantzia bat izan gabe ezaugarri bat adierazten den neurrian, hots, izenondo tradizionalen funtzio semantikotik hurbilago dau den neurrian, eskubialdeko kokagunea onargarriagoa da. Kontestu honetan sar litezke (13-15a/b) modukoak; aipatu ditugun *oinarritzko* modukoak (16-17) bestalde, zalantzarik gabe sar daitezke esparru honetan:

- (13a) *Pirinioetako ornodunak* (=pirenaikoak)
- (13b) * *Ornodun Pirineoetakoak*
- (14a) *Bilboko mutila* (=bilbotarra)
- (14b) ?*Mutil Bilbokoa*
- (15a) ?*Bilboko Jon*
- (15b) *Jon Bilbokoa*
- (16a) *Probabilitateen funtzio nahitaezkoa*
- (16b) *Probabilitateen nahitaezko funtzioa*
- (17a) *Egiazko gertaeren posibilitatea*
- (17b) *Gertaera egiazkoen posibilitatea*

Ikus daitekeenez, egoera honek, guztiz erraztu du morfologikoki izenondoak eta izenlagunak nahasteko eta horrela kokaguneaz ere okertzeko aukera.

(4) *Prozesu hau independente da tenperatuarekiko* modukoak, egokiak ote diren kontsideratu gabe ere, eskutartean dugun esparrutik kanpo daude. Ikus bedi honetaz ODRIOZOLA & ZABALAren (argitaratzeko) lanean azaldu dena.

2.2. **dun**

Ez dirudi *-dun* atzizkia daramatenak izenlagun direla segurtatzeko oztoporik dagoenik: Batetik, Irigoienek (1979) izen bati lotu ezezik, *izen-sintagma* oso bati ere lotzen zaizkiola azpimarratu du (5). Bestetik, *izen-sintagma* *+dun* + *izen-sintagma* eta *izen-sintagma* + *duen* + *izen-sintagma* sekuentzien arteko antzekotasuna aipatu dute autore gehienek, erlatibo-ko perpausak azken finean nolabaiteko izenlagun direla gogoratuz. Baina kasu honetan ere, gertatzen da lexikalizazioa, bi kokaguneetarako posibilitateak leku-genitiboaren kasuan baino garbiagoa direlarik. Azkue (1925) eta Eguzkitzaren(1990) arauera, (lexikalizaturiko) izenlagun hauen esangurak, posesioa edo ugaritasuna dira. Bigarren autoreak, bere aldetik, leku-genitiboak baino izenarekiko txertakuntz maila baxuagoa dutela esan du; izan ere, leku-genitiboa ezin jar daiteke *-dun* eta izenaren artean (**dirudun itxura oneko mutila*). Zentzu horretan, oso garrantzitsua da maila teknikoan *-dun* honen adiera *-ko* atzizkia har dezakeenetik ondo bereiztea, zenbait puntutan biak hurbil samar baitaude: Leku-genitiboak ezaugarri baten posesio figuratua adierazten duen bitartean, *-dun* honek ere, posesioa adierazten du baina posesio hori ez da aukera bakarra, hots, izenak adierazten duen izaki-klasearen barruan, indibiduo batzu *-dunak* eta beste batzu gabeak izango dira (15-16):

- (18a) *Hankadun narrastiak /hankarik gabeko narrastiak*
- (18b) *Narrasti hankadunak*
- (19a) *Exoeskeletodun animaliak / exoeskeletorik gabeko animaliak*
- (19b) *Animalia exoeskeletodunak*
- (20a) *Akastun pieza / akatsik gabeko pieza*
- (20b) *Pieza akastuna*

-Ko atzizkidunak, bere aldetik, hain markatuak ez direla dirudi, eta posesioa posibilitate bakarra (*hankadun ugaztunak / hankarik gabeko ugaztunak*) zein aukera bat (*energi galerako prozesua / energi galerarik gabeko prozesua*) adierazten bide dute. Bide horretatik joanez, *r erradiodun esfera* modukoak baztertzekoak lirateke eta esfera eta erradioaren arteko harremana posesio inalienablekoa dela garbi uzteko *r erradioko esfera* egitura bultzatu behar litzateke.

2.3. **-(t)ar**

Atzizki hau, *-dun* ez bezala, izen hutsari lotzen zaio (ez izen-sintagmari) (6). Beraren esanguren eta erabileren sailkapena, bestalde, tajutu samarra da:

(5) Ikuspegi horri dagokiola, deklinabide-atzizki batek bezala jokutzen du, soilik aldaki mugagabea duela esan badaiteke ere.

(6) Donibane Garazitarra edo Villar de Peralonso-tarra bezalakoak, *izen soila* + *-tar* modura sentitzen direla onartu behar dugu, *Bilbo Handitarra izen-sintagma seguruaren ezintasuna ikusita.

a) Gentilizioak: Leku-izen propioei loturik lortzen direnak, oso hurbil daude semantikoki izenondo batetik, eta agian zalantza horrek bultzaturik, kokagune biak dira normal samarrak. Edonola, Azkuek (1925) murriztapen baten berri eman du: Izen propioek, soilik atzean hartzen dute *-tar* atzizkia eta beraz, *-ko* atzizkidunen joera bera daukate:

- (21a) *Ondarrutar maisua, Ondarruko maisua*
- (21b) *Maisu Ondarrutarra*
- (22a) *?Ondarrutar Simon, Ondarruko Simon*
- (22b) *Simon ondarrutarra, Simon Ondarrukoa*

b) Patronimikoak: Gaur eguneko (aitaren) deiturari (7) lotzen zaio atzizkia, familiaren senide guztiak multzo modura izendatzeko. Ondorioa izena (8) dela dirudi:

- (23) *Simpsondar dibertigarriek, familiaren ikuspegi erreala eskaintzen digute astero*

Bide horretatik doaz nonbait, gaur egun maila teknikoko gaztelareren *-ano* edo bestelako bukaeradun izenondo batzu itzultzeko egin diren eratorriak. Geure ustez, guzti hauek izenondo garbiak dira eta ezkerreko kokagunea (24-29b), ezinezkoa edo gutxienez berezi samarra dela esaten ausart gintezke.

- (24a) *Banaketa gaussiarra* (Gauss)
- (24b) *?Gaussiar banaketa*
- (25a) *Elkarrekintza coulombiarra* (Coulomb)
- (25b) *?Coulombiar elkarrekintza*
- (26a) *Idea darwiniarra* (Darwin)
- (26b) *?Darwiniar ideia*
- (27a) *Logaritmo nepertarra* (Neper)
- (27b) *?Nepertar logaritmoa*
- (28a) *Biderkadura cartesiarra* (Descartes)
- (28b) *?Cartesiar biderkadura*
- (29a) *Mekanika newtondarra* (Newton)
- (29b) *?Newtondar mekanika*

(7) Itziar Lakak, komunikazio pertsonalean *-tar* daramaten hitz hauek izenaren aurrean jartzearena seguraski Sabino Aranari zor diogula iradoki digu (*Aranatar Sabin* moduko patronimikoei alegia). Azterketa filologikoa behar litzateke hau segurtatzeko, noski, baina mende hau hasi baino lehen soilik izenaren atzeko *-tar* atzizkidunak aurkituko bagenu, atzizki hau izenondo-sortzaile hutsa dela onartu behar genuke nonbait, nahiz eta *-ko* lekuzkoarekin harreman nabarietan egon.

(8) Ez da lan honen zeregina izenondo batek nominalizazio-prozesua jasotzerakoan azaltzen dituen ezaugarriak aztertzea, baina ikus bedi batetik *Simpsondar* hori izenaren ondoan egon gabe izenondo baten aurrean dagoela eta bestetik *persona simpsondarrek* moduko *izena + izenondoa* sekuentzia arrunta kasu honetan ez litzatekeela onargarria.

c) Izenondo erreferentzialak.

-*tar edo -tiar* atzizkiek (beraien arteko ahaidetasun-harremana alde batera utzirik), izenondo erreferentzial hutsak eratzeko ahalmena izan dute euskararen historian zehar, eta gaur egun ere bide hori bizirik dagoela dirudi (9). Azkuek (1925), honelako esangurako izenondoak aipatu ditu: 1) Aldekotasuna (*gerlatiar, gutarra*). 2) Kidetasuna (*gosatiar*). 3) Arduraduna (*ikustiar*). 4) Bestelako ezaugarriak (*goiztar*). Guzti hauek, oker ez bagaude, soilik eskubialdeko kokagunea onar dezakete, esana dugunez izenondo hutsak baitira (10).

Maila teknikoan, euskarak ez dauka oso zabaldurik bide hau, baina badira *logaritmo hamartarra, sistema bitarra* bezalako adibide batzu. -*Ar* bukaeradun maileguen esparrua, ordea (*polarra, laminarra*), askoz ere zabalagoa da, beste hizkuntzen egitura zuzen kalkatzen delarik. Hemen ere, *polar* bezalako mailegua eta *lekeitiar* bezalako euskal gentilizioa nahas litezke, lehen *lipidiko* eta *oinarrizko* nahas daitezkeela esan dugun bezala.

3. HITZ ERATORRIAK

Esparru honetan nahasketak gertatzeko beste arrazoi bat, orokorki, izenondoaren nominalizazioaren prozesua dugu; honelakoan, izenondoa izenaren eskubialdean jarri gabe, soilik doa, izen-sintagma osoa eratuz. Berau, prozesu arrunta da hizkuntza askoren izenondoaren erabileren artean. Edozein modutan, nominalizio horretan ere, zenbait puntu zehaztu behar da:

a) Izenondo gehienak ager daitezke okasionalki izen modura perpaus batetan (30-31b) Hiztunak, honelakoetan, badaki adjektibo bat erabiltzen ari dela, hots, izaki baten ezaugarri bat ematen ari dela; izan ere, izaki hori adierazi nahi du, beraren ordeztu oso berea duen ezaugarri bat daraman izenondoa erabiltzen badu ere. Honelako nominalizazioetan, izaki hori beti berreskura daiteke (*exoergonikoak* esaten denean, *prozesu exoergonikoak* ulertzen da).

(9) Izenondo erreferentzialak, Ensunzaren (1989) arauera, zerbaiten erreferentzia egiten dutenak dira; zerbait hori, izen, aditz, adberbio edo zenbatzaile baten bidez adierazten da eta izenondo erreferentziala horietako baten eratorri morfologikoa izango da oro har, autore honen adibideetan ondo ikus daitekeenez: *Kono* /*koniko*, *neur(tu)* /*neurgarri*, *hiru/hirukoitz*. Autore berak, *cercano* edo *lejano* moduko erdal izenondo erreferentzialak eskaini dizkigu komunikazio pertsonalean, *cerca* eta *lejos* adberbioen kasurako

(10) Morfologikoki ondo eraturik ote dagoen kontsideratu gabe, *lesbiar* bezalako kasua, oso interesgarria da, ez baitago bat ere garbi izenlagun ala izenondo erreferentzial ote den: Lesbos-ekoak ziren / Lesbos-en bizi ziren emakumeen sexualitate-motaren erreferentzia. Edonola, oso hitz gutxi daude honelako egoeran.

b) Zenbait izenondo, bestalde, oso maiz erabiltzen da izen modura, adierazten den ezaugarria izen batekiko oso espezifiko izateagatik edo bestelako arrazoi batengatik. Kontu honek, berebiziko garrantzia du hizkuntz maila teknikoan, atzizki eratorle batzuren inguruan eratzen diren hitzak direla eta: *-le*, *-garri* edo *-gai* bezalako atzizkiek, izena zein izenon-
doa sorterazteko balio dute, oso kasuistika konplexua sorteraziz:

b1) Guztiek daukate izenondo arrunt modura eta izenondo nominalizatu modura erabiltzeko aukerak (30-37a/b), bigarren kasuan izena guztiz berreskuragarria delarik.

b2) *Talde*, *multzo* edo antzeko hitzen ondoan, oso esangura ezberdinetako bikoteak osotzen dituzte: Elkarketaren lehenengo elementu direnean (30-37c), taldea osotua duten elementuak adierazten dira. *Talde* izenaren eskubialdean izenondo modura agertzen denean (29-34d), talde horren ezaugarria adierazten dute edozein izenondok bezala.

b3) Izen arrunt gehienekin batera, elkarketa ez da posible eta ezker-
raldeko gunea debekaturik daukate (30-37e). Hauxe dugu batez ere, kasuistikaren beste posibilitate guztiez nonbait zorabiatu-
rik, gaizki egin ohi dena.

b4) Atzizki hauek, zenbait kasutan zuzen sortu bide dute izena; beronen froga, beste izenondo baten ezker-
raldean kokatu ahal izatea izango litzateke (30-37f).

b5) Sorturiko izenondo batzuk, nominalizaziorako erresistentzia handia dute (35-36/f):

- (30a) *Aurreko sailean prozesu endoergonikoak ikusiak baditugu ere, sail honetan prozesu exoergonikoak aztertuko ditugu*
- (30b) *Aurreko sailean prozesu endoergonikoak ikusiak baditugu ere, sail honetan exoergonikoak aztertuko ditugu*
- (31a) *Animalia homeotermoez ez bezala, animalia poikilotermoez dute konstante mantentzen beraien gorputz tenperatura*
- (31b) *Animalia homeotermoez ez bezala, poikilotermoez dute konstante mantentzen beraien gorputz tenperatura*
- (32a) *Gizon /emakume ikerleak, ez du errealitatetik kanpo bizi behar*
- (32b) *Ikerleak, ez du errealitatetik kanpo bizi behar*
- (32c) *(Ikerle-) taldea (ikerlez osoturiko taldea) hiru egunetan izan zen itsasoan*
- (32d) *Talde ikerlea (ikerkuntzaz aritzen den taldea) lanean hasi baino lehen, proiektuak ondo zehazturik egon behar du*
- (32e) **Ikerle emakumea*
- (32f) *(*Gizon) ikerle nagusia, Bayne da*
- (33a) *Gizon /emakume idazleak, beharbada errealitatetik kanpo bizi daitezke*

- (33b) *Idazlea, beharbada errealitatetik kanpo bizi daiteke*
- (33c) *(Idazle-)talde hau, Espainiaren errealitate soziokulturalaz kezkatu zen*
- (33d) *?Talde idazlea*
- (33e) **Idazle gizona*
- (34a) *Entzima hidrolisatzailea, inaktibaturik dago*
- (34b) *Hidrolisatzailea, inaktibaturik dago*
- (34c) *(Hidrolisatzaile-)taldea (elementu hidrolisatzaileaz osaturiko taldea), oso murriztua da*
- (34d) *Talde hidrolisatzailea (hidrolisatu egiten duen taldea)*
- (34e) **Hidrolisatzaile molekula*
- (35a) *Gauza ezaugarria da animalia hauen eskeletoa externa dela*
- (35b) *?Ezaugarria da animalia hauen eskeletoa externa dela*
- (35c) *(Ezaugarri-)talde honek (ezaugarriaz osaturiko talde honek), ondo definiturik dauka landare-espezie hori*
- (35d) *Talde ezaugarria (ezagutu behar den taldea), bigarrena da*
- (35e) **Ezaugarri gauza*
- (35f) *Ezaugarri nagusia, eskeleto externa da*
- (36a) *Ikuspuntu interesgarria, termodinamikoa da*
- (36b) **Interesgarria, termodinamikoa da*
- (36c) **Interesgarri-taldea*
- (36d) *Talde interesgarriena, bigarrena da*
- (36e) **Interesgarri ikuspuntua*
- (36f) **Interesgarri nagusia*
- (37a) *Elementu osagaia, bigarrena da*
- (37b) *Osagaia, bigarrena da*
- (37c) *Osagai-taldea (osagaiez osaturiko taldea), III taulan azaldu dugu*
- (37d) *Talde osagaia (osatu egiten duen taldea)*
- (37g) *Osagai nagusia*
- (37e) **Osagai elementua*
- (37f) *Konposatu organikoen osagai nagusia, karbonoa da*

4. HITZ-ELKARKETA

Hitz-elkarketak aurreko adibideetan zirriboratu duguna baino zeregin handiagoa dauka kontu honetan, nahasketak are leku desberdin gehiagotatik etor daitezkeelarik:

a) Elkarketa estaliak

Mitxelenak (1976), Euskaltzaindiak (1985) eta Azkaratek (1988) adierazi dutenez, bi silabatatik gorako izenetan, beste batekin elkarketa eraterakoan azken silaba erori eta $r > l$ aldaketa gertatu da. Horrela, beste

izen baten aurrean gelditu da izena, baina itxura nahiko aldatua du, hiztun batzuk izenondotzat har lezaketelarik. Fenomeno hau, dena dela, oso izen-talde murriztuan gertatu da (*afari*>*afal ordua*, *merkatar*>*merkatal harremana*, *bazkar*>*bazkal ordua*, *euskara*>*euskal perpausa*, *erdara*>*erdal hizkuntza*) eta ez dirudi, Mikel Zalbidetik adierazi duenez, gaur eguneko mailegutan inola ere egin daitekeenik (*safari*>*?safal bidaia*). -*Ar* bukaeraz esan dugun bezalaxe, hemen gainera nahasketa bat gerta daiteke -*al* bukaeradun maileguzko izenondoekin; azken hauek, -*ar* duten erdal maileguak bezala, zer esanik ez, ezin ager daitezke izen baten ezkerrialdean (**nazional arazo*<*° nazionari*).

b) Hitz elkartuaren lehenengo elementuak, izenondoaren funtzio semantiko berbera betetzen du eta izan ere, bikote zilegiak, ugari dira batez ere maila teknikoan, aurrean aipaturiko autore askok garbi adierazi dutenaren arauera:

- (38a) *Arazo ekonomikoak (Euskaltzaindia)*
- (38b) *Ekonomi arazoak*
- (39a) *Istripu laborala (Euskaltzaindia)*
- (39b) *Lan-istripua*
- (40a) *Laguntza soziala (Euskaltzaindia)*
- (40b) *Gizarte-laguntza*
- (41a) *Lipido-molekula*
- (41b) *Molekula lipidikoa*
- (42a) *Metodologi arazoak*
- (42b) *Arazo metodologikoak*

c) Aurreko sailean aditzera eman dugunez (30-37c/d), zenbait kasutan orden konbinaketa biak dira posible; honetarako, zenbait baldintza bete behar da: Bi aldaketan izen gisa agertzen denak, talde, multzo, alderdi edo antzeko esangura duen izena izan behar du. Bigarren elementua, izenaren eskubialdean ager daiteke izenondo modura, edo elkarketa baten lehenengo izen modura (nominalizazioa pairatu ondoren). Bestalde, zenbait kasutan soilik bigarren kasuko izenondo erreferentzial mailegatuak adieraz dezake behar dena, eta (43a/b) ondo dauden bitartean (44b) gaizki osoturik legoke, *elektroi* izenak elkarketaren lehenengo izen modura ezin baitu (45a) forman eman den *elektroniko* izenondoaren adiera hartu (elektroiez beste zeozer markatzen duen makina): (44b) eginez gero, adierazi nahi ez dena (elektroiak markatzen dituen makina ulertuko litzateke). Beronek, jakina, garrantzi handia du testu teknikoetan; maila literarioan aldaki estilistiko bi daudela onartuko genuke (41a-b) eta bietatik balio estetiko garatuena elkarketarena izango luke; izan ere, izenondo erreferentzial mailegatu berriek, kutsu tekniko nabaria daukate (45b eta 42-43a/b); ikus bedi dena den, hizkuntz maila teknikoan ezinbestekoa den erabilera atributiboa (46-47b) soilik izenondo erreferentzial mailegatuaren kasuan egin daitekeela, eta bestalde, elkarketak (46c) ezin

adieraz ditzakeela beti mailegu desberdin batzuren arteko nabardur ezberdintasun tekniko guztiak (46/47 a/b):

- (43a) *Elektroi-geruza*
- (43b) *Geruza elektronikoa*
- (44a) *Markagailu elektronikoa*
- (44b) *#Elektroi-markagailua*
- (45a) *Ur-jantzi bat soinean zeneramala agertu zintzaizkidan ametsen*
- (45b) *#Jantzi akuatiko /akuikola oinean zeneramala agertu zintzaizkidan ametsen*
- (46a) *Animalia hauek akuikolak dira*
- (46b) *Hauek animalia akuikolak dira*
- (46c) *Hauek, ur-animaliak dira*
- (47a) *Animalia hauek akuatikoak dira*
- (47b) *Animalia hauek, akuatikoak dira*

5. (USTEZKO) SALBUESPENAK

Azken sail honetan, izenaren ezker aldean kokatu behar diren elementu sailkagaitz batzu ikusiko ditugu, berauek ere izenondo arruntak ezkerrean jartzera eraman dezaketelakoan:

a) Lafitte (1944), Euskaltzaindiak (1985) eta Eguzkitzak (1990) adierazi dutenez, zenbait izenondo izenaren ezker aldean jar daitezke harri durazko perpausetan; azpimarratu beharrekoa da ordea, honelakoetan bi sintagma desberdin itxuratzen dela eta beraz *Gaixo bekataria!* modukoak ez direla **exoergoniko erreakzioa* bezalakoak; izan ere, kopula-aditza eliditurik daukan perpausen antza daukate (*zeu zara gaixoa, bekatari*).

b) *Frantses, ingeles, giristino, kristau...* moduko hitzak, izenaren ezker aldean kokatu ohi dira. *Giristino edo kristau* direlakoan kasuan, aurrean aipaturiko alternantzia dagoela dirudi (*kristau legeak, lege kristauak*). Gauza bera esan genezake *frantses liburua* edo *ingeles ikertzailea* direlakoei buruz, baina egia esan, egoera korapilotsuagoa da; izan ere, Eguzkitzak (1990) adierazi duenaren arauera, *frantses* hori *frantziar* delakoaren ordez jartzen da, kokagune berbera estaltzeko. Nominalizazio horren hipotesia baztertu nahi izatekotan, *-ar* atzizkiko gentilizioen kalkoa egin dela pentsa daiteke, baina edonola izanik ere, kokagune hori orokorki ez da izenondoetarako zilegi.

c) Villasantek (1978) esan duen bezala, *azken*, izenaren ezker aldean doa. Hemen ere, *azkenengo* edo *azkeneko* direlakoan eragina soma liteke, baina besterik gabe, izenondo kalifikatzaile ez dela onartu eta beste edonolako zenbakarri edo modifikatzailea dela pentsa daiteke.

d) Koloreen izenak, geure ustez, izenondo zirerateen jatorriz edo erabilera oinarrikoena izenondoena dela dirudi behintzat: *Kolore gorria /kolore gorrikoa*. *Gorri*, ordea, izenondo modura sentitu beharrean, hau da, ezaugarri bat adierazten duela sentitu beharrean, ezaugarri zehatz bat daukan izaki abstraktu baten izen (nagusi)a dela pentsa liteke; kasu honetan, *gorri (izeneko /deritzon) kolorea* izango genuke, betiko alternantzia baimenduz.

e) Ordinalak

Eguzkitzak (1990) espreski erkatu ditu *-ko*, *-dun* izenlagunak eta izenondo ordinalak, azken hauek izenaren ezker aldean kokatzen direla azpimarratuz; ez dirudi *bigarren* edo *hirugarren* moduko hauek izenondo kalifikatzaileen esparrutik atera eta nolabaiteko zenbakarritzat hartzeko arazorik dagoenik. Bestalde, *lehenengo* izenlagun dela pentsa daiteke, jakina.

6. ONDORIOAK

Lan honetan, izenondoaren ezker aldeko kogune okerra salatzen saiatu gara, arrazoi posibleak menturatuz.

a) *-ko*, *-tar* edo *-dun* atzizkiak eratzen diren izenlagunek, zenbait kasutan izenondoaren funtzio semantiko bera izateaz gain, izenaren ezker alde zein eskubialdean koka daitezke nola edo halako askatasunez (*oinarrizko teoria*, *ankadun narrastiak*, *amerikar ikerlea /teoria oinarrikoa*, *narrasti ankadunak*, *ikerle amerikarra*). Lexikalizatu egin diren neurrian, *-ko* izenlagun-atzizkiaren presentzia ez da sentitzen eta hiztun ez-kultuak edo alfabetizatugabeak izenondoa ezker aldean jartzen dela ondoriozta dezake.

b) Berez marginal samarra den fenomeno batek, garrantzi handia du maila teknikoan, beharbada edukinen konplexutasunagatik edo oro har bizitza arruntetik kanpoko izen-sintagma ez-ohizkoak izateagatik: *-le*, *-gari* eta *-gai* atzizkiak osoturiko hitzak, izenondo zein izen izan daitezke, eta horretaz gain, izenondo batzu nominalizaturik daude era finkoan. Horrela, eratorri hauek (*talde esangura duen*) izen baten atzean ager daitezke izenondo modura (*talde hidrolisatzailea*, *talde ezaugarria*, *talde osagai*) baina baita nominalizatzeko itxura aldatu gabe izen berberaren aurrean izen horrekiko elkarketa osotuz (*hidrolisatzaile-taldea*, *ezaugarri-taldea*, *osagai-taldea*). Bi egituren esangurak, zeharo ezberdinak dira, baina edonola, zenbait hiztunek *talde* izen horren aurrean jarri dena izenondo dela pentsa lezakete betiko errua azalduz.

c) Talde esangurako izen horietatik kanpo, izena (1) + izenondoa (2) (*arazo metodologikoak*) / izena (2)-izena (1) (*metodologi arazoak*) alter-

nantzia, berez, nahastezina da *metodologiko* izenondoa eta *metodologia* izena elkarrekiko nahastezin diren neurrian, baina hain zuzen ere **metodologiko arazoak* moduko izen-sintagma ezinezkoak ikus daitezke gaur egun. Edonola, prozesua maila tekniko hertsiairen esparrutik kanpo ere badagoela pentsatu behar da *luzemetraia* monstruo arrakastatsuari kasua eginez gero.

d) Euskarak oso bereak dituen erabilera arrunt batzu ere, nahasketaren arrazoi (marginal)ak izan litezke: *Gaixo bekataria* moduko perpausa harridurazkoak, *frantses porrua* moduko elkarketa sailkagaitzak, izenondotzat jo litekeen *azken* modifikatzaile berezia eta zenbakarrizat jo behar diren *lehenengo*, *bigarren* eta abarreko ordinalak.

BIBLIOGRAFIA

- ACADEMIA DE LA LENGUA ESPAÑOLA, 1973. *Esbozo de una nueva gramática de la lengua española*. Espasa Calpe. Madrid, 1983.
- AZKARATE, M., 1988 a. Hitz konposatuak euskaraz. Tesi doktora. Euskal Herriko Unibertsitateko Filologia eta Geografia/Historia Fakultatea. Gasteiz.
- AZKUE, R.M., 1891. *Euskal Izkindea*. José de Astui-ren moldiztegian. Bilbo.
- AZKUE, R.M.^a, 1925. *Morfología vasca*. La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbo, 1969.
- EGUZKITZA, A., 1990. *Adnominals in the grammar of basque* (in press).
- ENSUNZA, M., 1989. Erdal adjektibo erreferentzialetarako euskal ordainak. *Euskera* 34 (2): 577-596.
- EUSKALTZAINDIA, 1985 *Euskal gramatika. Lehen urratsak*. Iruñea.
- GOENAGA, P., 1978. *Gramatika bideetan*. Erein. Donostia, 1980.
- IRIGOIEN, A., 1978. *Crítica sobre prefijación y sufijación en lengua vasca*. *FLV*. Año XI, n.º 32: 243-258.
- LAFITTE, P. 1944. *Grammaire basque*. Elkar, Donostia; 1979.
- MITXELENA, L., 1976. *Fonética Histórica Vasca*. Imprenta de la Diputación de Guipuzcoa.
- ODRIOZOLA, J.C. & ZABALA, I. *Idazkera teknikoa: II. Izen-sintagma* (in press).
- TXILLARDEGI, 1978. *Euskal gramatika*. Ediciones Vascas argitaletxea, Donostia.
- VILLASANTE, L., 1978. *Estudios de sintaxis vasca*. Editorial franciscana de Aránzazu. Oinati.
- VILLASANTE, L., 1980. *Sintaxis de la oración simple*. Editorial franciscana de Aránzazu. Oinati.